



Astekaria



elgoi



**Karakateko antena
eztabaidaren gailurrean**



ALBAITARITZA KLINIKA

ABERE TXIKIETAN ESPEZIALIZATUAK

San Roke, 26 (tren geltokiaren gainean) ELGOIBAR


Telefonoa 74 07 04 • LARRIALDIK (24 ordu) 908 87 39 40

ORDUTEGIA: Goizez 11-13, arratsaldetan 5-8 eta larunbatetan 11-13,30



Lagunik onena zure telefonoaren ondoan!

El goi bar eta Mendaroko zerbitzu eta profesional guztiak



OHARRA:

Otsailaren 16ko BARRENein batera, faltan edota oker daudenen telefono eta helbide zuzenekin ZUZENKETA-ORRIA banatuko dugu. Beraz, zuzenketaren bat egin nahi duzuenok,

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementería.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martín,

M. Angeles Ortoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegí, Xabier

Ansola, Pello Arrieta, Ina

Garagarza, Joseba

Gorosabel, Amaia

Gorostiza, Maite Iriondo,

Edu Iriondo, Alberto

Iriondo, KOKOE, Edurne

Korta, Imanol Larrañaga,

Javi León, Juan Mari

Mendizabal, Milagros

Oiarzabal, Aitor Zabaleta,

Julen Zabaleta, Deñe

Zabalo, Luzia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-

1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Bakoitza eta bakoitzakeriak

Zazpi atedun Tebas hura, nork eraiki zuen? Liburuetan Errege izenik baizik ez da ageri ... Alejandro gazteak India bereganatu zuen. Berak bakarrik ote?

... Felipe Espainiakoak negar egin zuen bere Armada urperatu zenean.

Ez ote zuen beste inork negarrik egin?

... Hamar urtez behin gizon haundi bat, Nork ordaintzen zituen haren gastuak?

Zenbat historia! Hainbat galdera!

Zenbat historia! Zenbat galdera!

Oso gustukoa izan dut betidanik abesti hau. Esaten duenagatik eta Mikel Laboak bere abesti gehienei ematen dien xamurtasunagatik.

Egia biribil-biribilak esaten dituela pentsatzen dut. Garai guztietako istorioetan edo HISTORIAN, orrialde bete galdera daude. Eta askotan, orri bakoitzean galdera bat baino gehiago.

Egia esateko, ni gertuen dauden orrialdeek dituzten galderak kezkatzen naute. Sarritan egin izan diot neure buruari hainbat eta hainbat galdera. Eta sarritan aurkitu izan naiz erantzunik gabe.

Eta honela, bapatean, "El día de la bestia" filmea ikusi nuenean hainbat erantzun pilatzen hasi zitzaizkidan. Harrigarria da filme honetan zerikusi oso gutxi duten pertsonaiak borroka berdinean nola elkartzen diren.

Han doaz apaiz euskalduna, heavy

madrildarra, telebistako sasi-asmatzaile eta ultraeskuindar kuadrila (batzuk jakinean eta besteak jakin gabe) "antikristo" deuseztatzen. Bakoitzak bere "keriak" utzita, edota "keria" minimo batzuk mantenduz.

Ez dakit historian zehar honela izan den, baina azken garaian jendea buru-belarri ikusten dut bakoitzaren "keriak" defendatzen eta beste guztienak deuseztatzen. Bakoitzak du arrazoi osoa eta beste guztiak oker dabilta.

Eta niri besteen "keriak" ezagutzea, gutxienez, gustatzen zait. Ez ote daude hainbat galderaren erantzunak besteen "kerietan"?

Kamisetetan ikusten den esaldi batek dioenez "DESBERDINTASUNAK ABERASTEN GAITU". Sexu ezberdinak, zaletasun ezberdinak, kolore ezberdinak, ideia ezberdinak, arraza ezberdinak, erlijio ezberdinak, ...ezberdinak, ... ezberdinak, ... eta nahi dituzuen ezberdintasun guztiak.


"ABERASTU" egiten gaituzte.

Errespetatzen ikasten badugu, noski. Bestela benetako "KERIAK" bihurtzen dira: tontokeriak, txorakeriak, politikakeriak, txikiteokeriak, kirolarikeriak, artistakeriak, diskotekalarikeriak...

Zinemaren 100. urteurrena ospatu dugun garai honetan, oraindik txuribeltzeko filmeak ikusten ari ote gara?

Xabier Ansola

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Erretxinditik Berasetako bidea pintatu bai baina zuloz beteta segitzen du. Ez al dago konpontzeko intentziorik?

Udalarekin jarri gara harremanetan eta baserri bideen ardura Diputazioarena dela esan digu. Pintatu Diputazioak egin du eta konpontzeko ardura ere berea da.



KEXAK

Madalako eta Plaza Txikiko parkeetako kolunpioak konpondu gabe jarraitzen dutela salatu nahi du emakume batek. Lehenago ere kexatu ei dira kolunpioen egoera negargarria dela-eta (gomak apurtuta, alanbreak min egiteko moduan...). Hortaz, kolunpioak behingoz konpon ditzala eskatu nahi dio Mankomunitateari.



TXALOKAK

Emakume batek deitu digu Pesa garraio enpresa txalotu nahi duela esateko. Azken bi asteotan BARRENEko azken orrialdean egidako publizitatea benetan egokia eta aproposa dela iruditzen zaiola agertu digu.

ESKUTITZAK

Irtenbideak topatzeko sasoa da

Gazte Asanbladak honako hau adierazi nahi du: 1993ko Sanbartolotan, Plaza Txikiko lokalaren desalojoaren ondorioz atxilotutako zenbait gaztek tratu txarrak, irainak eta zauriak sofritzeagatik salaketa jarri zutela; eta honegatik kondenatuak izan ziren hiru ertzainek errekurtsioa tarteratu zutela, aipatu errekurtsioa Donostiako Auzitegi Probintzialak bertan behera utzi duela eta sententzia berretsi duela bere osotasunean.

Gertaera haien lekutik metro gutxi batzuetara patxadan afaltzen ziharduten erantzule politikoek, komeni zaienean giza eskubideak aho betez erabiltzen dituzten horiek, ez dute ezertxo ere esan kasu honetan. Ezertxo ere ez irentsi genuen gas guztiari buruz, jasandako zauriei buruz, pairatu genuen askatasun, manta eta ur ukapenari buruz... "Demokrazia" beti ahotan darabilten horiek, bortxakeria erabiltzen dute gehiengoaren nahia zapaltzeko, (torturatzearaino iritsiz), kasu honetan Gaztetxe baten sorrera. Arazoa gogotik erori zaiela dirudi hauteskundeak iristen direnera arte. Azken urte erdi honetan arazoa konpontzeko pauso bakar bat ere ez dute eman.

Elkarrizketaz hitz egin eta hitz egin eta gero ezertaz elkarrizketatzen ez duten horiek, eh, Garate? Zain egoteaz nazkanazka eginda gaudela esaten diegu, eta gertaera tristeak berriz errepikatu daitezzen nahi ez badute, irtenbideak aurkitzeko zerbait egin dezatela gaineratu.

Postdata 1: Biolentzia poliziala jasaten dugunok defendatzeko eskubidea gordetzen dugu. Itsasondoko Mikel Otegi gaztearekin gure elkartasuna adierazi nahi dugu.

Postdata 2: Donostiako Gaztetxearen erasketaren aurka gaude, eta bertako Gazte Asanbladari gure elkartasuna adierazten diegu.

Elgoibarko Gazte Asanblada

OKERRAK ZUZENTZEN

Joan den astean "Eskutitzak" atalean Kurutz Kastrillejok sinatutako kartaren azken lau lerroak gaizki idatzi genituen. Horrela esan beharko luke testuak: "Eta azkenik gure lema aldatuko dugu. Aurrerantzean ABERRIA ALA HIL izango da 'PNVren ABERRIA POLTSIKOA BETETZIA' ren ordez".

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Erretratu hau Gipuzkoako Futbol Federakuntzak 75. urteurrenean argitaratu zuen liburutik atera dugu. Liburua **Mari Angeles Gabilondok** laga digu.

Erretratua C.D Elgoibarko jokalariek osatzen dute, 1917-18 denboraldian txuri-gorrien koloreak defendatu zituzten elgoibartarrek, hain zuzen. Jakin dugunez, erretratuko guztiak daude hilda. Berau Lerun futbol

zelai zaharraren inguruetan aterata egon daiteke. Hauek dira futbolarien izen-abizenak:

Ezkerretik hasita: **Amador Unzilla** (†), **Doroteo Urdangio** (†), **Alberto Ezenarro** (†), **Pedro Loiola** (†), **Pablo Altuna** (†), **Rufino Unzueta** (†), **Ricardo Astigarraga** (†), **Demetrio Vallejo** (†), **Inazio Arri Illaga** (†), **Inazio Beloki** (†) eta **Saturnino Quintana** (†).

AURKEZPEN PUBLIKOA



EGUNA: Urtarrilaren 27an

TOKIA: Elgoibarko Udal Pleno

Aretoan

ORDUA: Eguerdiko 12etan

Elgoibarko 51 entitatek euren

Iritzi ezberdinetako uhinak jasotzen dituen antena

Batzuk sarri joan ohi dira puntara. Beste batzuk inoiz ere ez. Baina, batzuek zein besteek, guztiak ezagutzen dute Karakate, herritik bertatik ikusten den tontorra, Elgoibarko mendirik altuena. Ezagunak dira bai bere aldapa gogorrak, bai telebista antena izugarria bai eta bertatik Hirukurutzetarako bidean aurkitzen diren trikuharriak ere. Paraje ederra da benetan, natura

bere osotasunean arnastu eta bizitzeko aukera ematen du Karakatek. Aspaldian, ordea, beste arrazoï bategatik papereratu da aipatu mendia. Izan ere, martxotik hasita, antena berri bat eraikitzen daude. Honen inguruan, aurka azaldu direnak ere badaude. Batzuen eta besteen iritzia jaso eta bene-benetan, zer eta nola egin behar duten jakin nahi izan dugu.



Bukatzeaz daude Karakateko lanak.

Esan bezala, martxoan hasi zen Euskalnet enpresa Karakate goian obrak egiten. Orain pare bat urte inguru hasi zen proiektua martxan baina garai hartan baime- nen gaia besterik ez zego- en. Lehenbizi, Elgoibarko Udalari eskatu zion Eus- kalnet-ek baimena teleko- munikazio zentrua eraiki- tzeko. Elgoibarko Udalak gaia aztertu zuen, inguru- giroaren kaltea nolakoa izan zitekeen aztertu eta baietza eman azkenik. Halere, denbora aurrera joan ahala, aipatu antena


eta bestelakoak eraiki beharreko terrenoak Sor- luzeko Udalarenak zirela ikusi zen.

70 m.ko antena

Telekomunikazio zen- tro bat egin behar omen dute Karakaten. Antenaz gain etxe antzeko bat ere eraiki da. Bertan bulego ezberdinak izango dira. Alde batetik, ETB eta TVEko telebista emisioak hobeto ikusteko helburua- rekin eraiki da aipatu zen- troa, irrati emisio guztiak eta telefonikako lineak ere ahalik eta garbien jasotze- ko eta abar. Ertzantzak ere

KARAKATEri buruz jakitekoak:

- Altuera: 742 m.
- Buzoian Muneta izena jartzen du, horrela deitzen zuten soraluzetarrek eta, "Munetako haitzak".
- Hirukurutzeta: 895 m.
- 50 minutura Atxolin gaina dago, 864 m. Ibilbidea trikuhar- riz osatutako historiaurreko aztarnaz beteta aurkitzen da. Aranzadi Elkartearen esanetan K.A. 2.000 urtekoak omen dira. Askok hileta monumentak direla uste izan dute baina dirudienez lurra babesteko eraikitzen ziren. Paraje haietako biztanleentzat Karakate toki pribilijiatua zen bertatik bailara guztia ikusten baita eta han aurkitzen da monumentu garrantzitsuena.
- Sargoate iturria: Elgoibartar mendizale handi baten oroi- menez Morkaikok eraiki zuen iturria.
- Ibilbidean zehar armarriak dituzten hainbat baserri ikusten dira.



Marrazkian antena zaharra eta berria ikus daitezke.

gutxi gora-behera %10a izango du bere esku, komunikazioa hobetzeko asmoz.

Orain arteko antena eta ondoko etxetxo bota egingo dira. Obra berriak, 1.377 m²-ko azalera izango

du eta bertan 70 m.ko altuera (zaharrak 40 m. ditu) izango duen antena eta 290 m²-ko etxe bat, komunikazio zentro bat jarriko dira. Elgoibarko Udalak egin zuen bere garaian azterketa bat aipa-

tu obrak ingurugiroan izan zezakeen eragina jasotzeko asmoz eta emai-tzen arabera, Luis Felipe Galarraga Sorluzeko alkateak esan digunez, “inpakto bisuala izango da, bistarako txokkia, besterik ez”.

Obrak 1995eko martxoan hasi ziren eta oraindik ez dago jakiterik noiz amaituko diren. Printzipioz, komunikazio zentroa amaitzeaz dago eta gero antena jartzea etorriko da. Galarragaren hitzetan, “Euskalnet-ekuak eskaini ziguten han bertan erretegi antzeko bat eraikitzea, mahixekin eta jendia bertara juteko. Guk ezetz esan gendun, turistak jutiak ez dakalako ezer onikan, dana zikinkeriaz betetzia bakarrik”.

Obraren aurka azaldu den jendearen salaketei erantzunez, Sorluzeko alkateak jakinarazi digunez, “neretzat oin dauan baino hobeto geratuko da. Nik ez dot usten hain grabia danikan eta danon onerako bada!”.

KARAKATE BIZIRIK: antenaren aurkako plataforma

Soraluze eta Elgoibarko gaztez osatuta dago Karakate Bizirik plataforma. Komunikazio zentroa eraikitzeko obrak hasita zeudela izan zuten gaiaren berri eta zerbait egiteko asmoz elkartzen hasi ziren. Jasotako dokumentazioaren arabera ikusi zuten Sorluzeko arau subsidiarioetan Karakate parke natural izendatuta dagoela eta bertan eraikuntza eta bestelako urbanizaizorik egitea debekatuta dagoela. Araua eskuetan, alegazio bat bidali zuten Udaletxera, 800 sinadurarekin batera, obren behin-behineko geldiera eskatuz. Ezezkoa jaso zuten. Orain gutxi Arartekoari idatzi zioten aipatu arazoa azalduz.

Bien bitartean, informazioa jaso eta jendeari helarazteko helburuarekin hainbat ekintza egin dituzte. Joan den urteko uztailean akanpada bat egin zuten Karakaten bertan eta kaleetan Karakateri buruzko informazioa eman zuten kartel batzuen

bidez.


Karakate parke natural izendatuta dago Sorluzeko Udalaren eskuetik. Era berean, 1992an IKP 2000k Eusko Jaurlaritzarentzat eginiko ikerketaren ondorioz argitaratu zuen “Catálogo de Espacios y Enclaves Naturales de interés de la Comunidad Autónoma Vasca”n Karakate-Irurutzeta-Agerre Buru ere izendatzen dira. Inguruaren errespetatzen dadi nahi du Karakate Bizirik plataformak, “gu ez gaude aurrerapenen alde horrek naturaren aurka joatea suposatzen badu”.

Helburu ekologikoa izan zen abiapuntua eta gerora salaketa ere egin dute, “ez dugu ulertzen zergatik hasieratik jarri zaizkigun

horrenbeste oztopo bai informazioa jasotzeko orduan eta Karakaten akanpada egin, bizikletaz joan eta zergatik horrenbeste ertzain egon behar den. Komunikazio zentroak errepresio eta kontrol gehiago ekarriko badu ez gaude ados eta salatu egingo dugu”. Antenaren martxa geratzea ezinezkoa bada ere, plataformak jarraitzeko asmoa du, behinbetiko Karakate parke natural izendatu eta aurreran-tzean beste ezer eraiki ez dadin bertan.



Badakizu zertarako den Karakateko antena berria?



ANDER KRISTOBAL
18 urte, ikaslea

Seinalia hobeto hartzeko usten dot dala, ez? Lagun batzuk Karakatera jun zian akanpada batera eta euren bidez enteratu nitzan. Obra haundixegixa da, salbajada bat!



M.JESUS SAGUES
54 urte, etxekoandrea

Zerbait irakurri dut egunkarian, batzuk aurka daudela edo. Baina iritzi bat eman aurretik gauzak zergatik eta zertarako egiten diren jakin behar da.



JOSE AMADO
52 urte, arotza

Ez dut idearik ere. Zerbait egin behar dutela jakin dut kalean paskinak irakurri nituelako, batzuk kontra daudela edo horrelako zerbait.



BEGONA ARIZMENDI
36 urte, tabernaria

Idearik ere ez. Nere airera bizi naiz beste gauzez ia enteratu gabe. Horrelako gaiez ez zara interesatzen parian tokatzen jatzun arte.



JOSE LUIS MARQUEZ
22 urte, elektrizista

Ez nekien antena berria eraikitzen ari direnik ez eta zertarako den ere. Dena dela, zuhaitzak bota eta natura hondatzea gauzak eraikitzeko ez zait ondo iruditzen.



BRAULIA MORENO
40 urte, etxekoandrea

Telebista hobeto ikusteko izango da, ez? Batzuk kontra daudela entzun dut baina onerako bada edozein eraikuntza egitearen aldekoa naiz.

okindegia eta gozotegia

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR

**HERRI-
GAIN**

ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

Izarraitz Bizirik-ek Deba Beheko fitxero bat argitaratu du

Izarraitz Bizirik elkarteak mapa bat eta bi liburuskak argitaratu berri ditu. Mapan zehaztuta datoz Izarraitz Bizirik osatzen duten nekazal-letxe eta bestelako ekintza guztien kokapena. Bigarrenik, tamainu txiki eta erabilgarria duen fitxero bat argitaratu dute; aukera guztiak datoz bertan. Eta azkenik, astebukaera pasatzeko eskaintza bereziak luzatu dituzte. Udan, Aste Santuan eta bestelako data berezietan ezezik, urtean zehar ere jendea hurreratzeko asmoz, Zerain eta Gorbeia-Urkiola-ekin batera argitaratu dute aipatu eskaintza berezia.

10.000 pta.tik behera, astebukaera majoa pasatzeko aukera eskaintzen dute, egonaldia ezezik bestelako ekintzak ere barne. Izarraitz Bizirik Elkarteak 11 ekimen pribatuk osatzen dute, besteak beste, neka-

zalturismoa, jatetxeak, zeramika ikastaroak, zaldiak, bizikleta, errota eta oihala izanik. Aurrerantzean eskaintza ugartzea nahi da, ahalik eta osatuena izan dadin. Izarraitz Bizirik elkarteak DEBEMENen laguntza jasotzen du bai eta Diputazioako Nekazaritza eta Ingurugiro sailetik ere. Era berean, Fondo Sozial Europearraren babesa du, izan ere nekazalturismoari esker emakumea lan munduan integratzen ari baita. Aste honetan Madrilan izan den FITUR ferian aurkeztu da Izarraitz Bizirik-en eskaintza.



■ "Gurean Bai" hitzarmenaren aurkezpena

Larunbatean, hilak 27, Elgoibarko Izarraitz eta Elgoibarko Udalak "Gurean Bai" hitzarmenaren aurkezpena egingo dute Udaletxeko Pleno Aretoan. Eguerdiko 12etan hasiko den saioan hitzarmen-proiektuaren nondik-norakoak azalduko dituzte. Helburua Elgoibarko elkarte eta erakundeetan euskararen erabilera, ahaztua zein idatzizkoa bultzatzea da. Herriko 51 elkarte eta erakundek sinatuko dute hitzarmena.

■ Eskola publikoaren mapa berria

Datorren asteazkenean, hilak 31, eskola mapa berriaren ondoren, Deba eskualdean irakaskintza publikoan izango den herri eskaintza zertan geratuko den azalduko dute iluntzeko 7etan hasiko den saioan. Eskaintza egiten duten bost zentroetako (Mendaroko ikastola, Herri Eskola, Arreiturre Institutua, Bernardo Ezenarro Institutua eta Erreminta Makiaren Institutua) zuzendaritzak, Mendaroko eta Elgoibarko alkateek eta Hezkuntza Saileko arduradun batek hartuko dute parte. Irakaskintzarekin zerikusia duten guztiei luzatu nahi diete antolatzaileek ekitaldira joateko gonbidapena. Herriko Ezenarro Institutuan izango den saioaren ostean luntxa eskainiko da.



BARREN *astekarian*

PUBLIZISTA bat behar da

ESKATZEN DA

- Lanerako gogoia
- Harri emanetarako

ESKAINTZEN DA

- Urtebeterako kontratua

Izena emateko azken eguna: otsailaren 2a

Izena emateko eta informazio gehiago: Elgoibarko Izarra K. E. Ubitarte 4,

■ Santa Agedako koruen entsaiuak hasiko dira

Santa Ageda egunean urtero koplatan herriko behartsuentzako diru eske ateratzen den koruak gaur, hilak 29, hasiko ditu entsaiuak Merkatu Plazako azken pisuan, iluntzeko 8etatik aurrera. Otsailaren 3an, larunbata, Santa Agedaren omenez koplatan zeharkatuko dituzte kaleak, ohitura duten bezala, lehen koplara parrokoari eskaini ondoren. Interesatuak entsaiuetara ager daitezten animatu nahi dituzte koruen antolatzaileek.



■ Misioetako tonbola

San Lazaro egoitzak antolatutako misioetako tonbolan sarituta atera diren zenbakien zerrenda da segidan agertzen dena:

Margotutako mantela.....0716
Esprimidore elektrikoa ...0758
Kristaleria0914
6 zerbitzuko baxera1029
Ile lehorgailua1314
Bainuko toaila1752
Mahaiko erlojua.....1928
Brodaturako mantela1984
Platerak.....2102
Mahaiko erlojua.....2461
Esprimidore elektrikoa ...3007
Esprimidore elektrikoa ...3072
Batidorea3657
Mahaiko erlojua.....3721
Mahaiko erlojua.....3978
6 zerbitzuko baxera4000
Opariak jasotzeko epea hilabetekoa izango da.

■ Abiadura handiko trenaren aurkako martxa

Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak trenaren aurkako Astea ospatzen dihardu egunotan Tolosan. Igandean, hilak 28, mendi martxa burutuko da Billabonako tren geltokitik hasita. Zizurkil, Asteasu, Anoeta, Hernialde eta Tolosako herrietan trenak eragingo lukeen hondamena aztertuko da. Eguerdiko 14,30etan bazkaria izango da eta arratsaldeko 16,30etan kalejira herrikoia.

Gabonak Jolasean programaren baitan 48 haur aritu dira

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteke Atxutxiamaiak Begirale Taldeak abenduaren 26tik urtarrilaren 5era bitartean antolatutako Gabonak Jolasean egitasmoaren balorazioa erabat positiboa dela adierazi dute taldeko kideek. Partaidetza aldetik, 48 haurrek igaro dituzte Gabonetako oporrak begirale taldekoekin, goizeko 10etatik eguerdiko 1era bitartean zortzi egunez. Haurrek ondo baino

hobeto igarotzeko aukera izan dute jolasean, irteeretan, eskulanak egingen, pailazoen txisteeekin...

Harrerarik onena izan zuten ekitaldiak Takolo, Pirrutx eta Porrotx pailazoen ikuskizuna, Eibarko parke infantilera irteera eta eskulanak izan ziren. Datorren urtera begira, haurrak ondo pasa-tzeko programari berriro heltzeko asmoa dute begirale taldekoek.



Ikastolako haurren jaialdia burutu zen joan den ostiralean Olaizaga Kiroldegian. Bi ordu inguru iraun zituen saioan Ikastolako ia haur guztiek hartu zuten parte, bi urtetik hasita BBBko mailaraino. Indioak, Asiako herrialde urrunetako natiboak eta besterik ere antzestu zuten ikasleen jarduna ikusten guraso eta ikuslez lepo zegoen Kiroldegiko kantxa.

Asier Zengotita intsumitua epaituko dute asteazkenean



Asier Zengotita, 26 urteko gazte intsumitua hil honen 31n epaituko dute Donostiako auzitegian. Goizeko 12ak laurden gutxietan hasiko da epaiketa eta hara jon nahi duten guztiak goizeko 10,30etan Plaza Handian elkartuko dira. Elgoibarko Talde Anitmilitaristaren datuen arabera, dagoneko epaitzen duten 19. elgoibartarra da Asier Zengotita, “19 horietatik batzuk sententzia aplikatzeko zain daude, beste batzuk sententzia errekurritu ondoren errekurtsioaren zain. Badira epaitu gabe daudenak bai eta epaileak eskatuta indultuaren zain daudenak ere”.

■ Mozorro lehiaketa egongo da Ihauterietan

Udalak, herriko zenbait gazteren laguntzaz, mozorro desfile eta lehiaketa antolatu du otsailaren 17rako, ihauteri larunbata. Taldean zein banaka mozorrotutako jantziak sarituko dira, hortaz, parte hartu nahi dutenak prestatzen has daitezke mozorroak. Desfilea gauerdian hasiko da Plaza Handian.

■ Diapositiba emanaldia eta mendi travesia

Morkaiko Mendizale Elkartearen eskutik, Yosemite buruzko irudiak ikusteko aukera izango da gaur, ostirala, hilak 26, gaueko 22,00etan Kultur Etxean. Aitor Esnaola eta Pablo Barrenetxeak ateratako diapositibak dira eta beraiek egingo dituzte saioan aukezpen lanak.

■ Orduko 115 km-ko haizea izan da asteburuan

Joan den astebukaeran demaseko haize boladak izan ziren Euskal Herri osoan. Andoni Aizpurua aurkezleak esan digunez, ETBk Elgoibarren duen meteorologi zentroan jasotako datuen arabera, igandean 115 km/h haize boladak izan ziren Elgoibarren eta astelehenean orduko 104 km-koak. Ekialdetik jo omen zuen haizeak gure herrian Euskal Herrian hego haizea nagusitu bazen ere, Aizpururen hitzetan, “kokapenaren arabera izaten da hori”.

Elgoibarren zuhaitz bat bota omen zuen haizeak eta Euskal Herrian zehar suteak sortu zituen hanhemenka. Aurten ez ohiko negua jasaten ari gara, oso euri gutxi egiten ari du eta normalean kostaldean izaten diren arren euriterik handienak, aurten barne aldean dira nagusi.

■ Defentsa pertsonal ikastaroa emakumeentzat

Datorren otsailaren 3tik aurrera, emakumeei zuzenduriko defentsa pertsonal ikastaro praktikoa emango da Kiroldegian goizeko 10etatik 12etara bitartean. Luis Agirregomezkorta elgoibartarraren zuzendaritzapean, gorputzaren erabilera, egoera traketsen aurrean nola defendatu eta aspektu psikologikoak landuko dituzte. Ikastaroa bost larunbatetan izango da. Luis Agirregomezkorta Karateko entrenatzaile nazionala, gerriko beltza 3. dan eta defentsa pertsonaleko instruktore nazionala da. Izena emateko edo berri gehiago izateko 74 13 61 zenbakira deitu.

■ HB eta EBren mozioa

Elgoibarko HB eta EB/IU alderdiek duela lau urte PSEren eta PNVren botuekin plenoan aldatu zen barne araudiari buruzko mozioa aurkeztuko dute gaur, ostirala, izango den plenoan. “Egoera injustua” da bi alderdi hauen iritziz “plenoetan bizi dena, eta hori aldatu nahi dugulako aurkezten dugu mozioa”. Lehen puntuak plenoak hiru hilabetetik behin egin beharrean “hilero egitea” eskatzen da. Bigarren puntuak hala dio: “alkateak hala eska-tzen duenean edo udalkideen legezko kopurua, gutxienez, laurdenak eskatzen duenean egingo dira plenoak. Kasu honetan deialdia presa handienarekin egingo da eta eskabidea egiten denetik 72 orduko epearen barruan”. Azkenik, “plenoak herritar eta erakunde guztiei irekiak izatea eta hitzarekin baina boturik gabe parte hartzeko aukera izatea”.

■ San Juan Bosco eguna Herriko Institutuan

Herriko Institutuak patroiairen eguna, San Juan Bosco jaia, ospatuko du datorren ostiralean, otsailak 2. Hori dela eta ikasleek zenbait joko eta lehiaketa egingo dituzte goizez eta arratsaldez.

Maria Garcia:

"10 hizkuntzatarara egiten ditugu itzulpenak"

39 urte dituen emakume honek, señorita Anitarekin ikasi zuen, beste askok bezala. Gero, Ingalaterrara joan eta bertan 16 hilabete eman zituen. 17 urte zituela hasi zen lanean Elgoibarko enpresa batean eta horrekin batera, ingeleseko klase partikularrak emateari ere ekin zion. Baina, urteak joan urteak etorri, Maria Garciak partikularrak utzi

zituen eta krisiaren eraginez enpresan egiten zuen lana ere gutxitu egin zen. Hortaz, denbora libreza zuenez, beste zerbaitetan aritzea pentsatu eta itzulpenak egitea okurritu zitzaion. Tradurapid agentzia sortu zuen eta gaur egun 10 hizkuntza ezberdinetara egiten dituzte itzulpenak. Europar Komunitateko hizkuntza guztietara, alegia.

- Zuk zeuk zenbat hizkuntza dakizkizu?

- Ingelesa bakarrik. Baina, kontaktuak ditut itzulpenak beste 9 hizkuntzatan egin ditzaketen pertsonekin. Batzuk nati-boak dira eta besteak ez baina guztiak daude filologian lizentziatuak.

- 10 hizkuntza itzultzen dituzue, ez?

- Bai, Europar Komunitateko hizkuntza guztiak lantzen ditugu, 10 dira guztira: ingelesa, frantsesa, alemaniera, danesa, holandesa, itali-
era, grekera, portugesa, finesa eta suekoa.

- Hizkuntza ezagutzea nahikoa al da itzulpenak egiteko?

- Ez. Argi dago hizkuntza ondo menperatu behar dela baina horrez gain, zein kontestutan mugitzen zaren jakitea eta horren inguruko guztiak ondo ezagutzea ere beharrezkoa da.

- Esate baterako?

- Ni Elgoibarko enpresetan mugitzen naiz. 17 urtekin hasi nintzen erreminta-makinaren munduan lanean eta nahiko ondo ezagutzen dudala esan dezaket. Gaia ezagutzen dut eta nahikoa



"Itzulpenak egiteko hizkuntza bat ezagutzea ez da nahikoa. Zein kontestutan mugitzen zaren ere kontuan hartu behar da"

prestatua nagoela uste dut itzulpenak behar bezala egiteko. Nire kolaboratzaileek ere erreminta makinari buruzko ezagupenak badituzte. Kontuz ibili behar da, bestela hankasartze handiak egin daitzke eta.

- Gertatu izan al zaizue?

- Niri ez baina konturazaitzen zeinen garrantzitsua den itzulpena ondo egitea, lagun batek konta-

tu zidana jarriko dizut adibide. Dirudienez, behin makina bat jaso zuten eta instrukzioak jarraituz makina mugitzen hasi zirenean montatzeko, dena erori zitzaion. Instrukzioak ez zeuden ondo zehaztuta, antza.

- Zein testu mota itzultzen dituzue?

- Eskutitzak, kontratu arauak, kreditoen baldintzak eta, batez ere, maki-

nen erabilerari buruzko instrukzioak. Izan ere, formatoa eman eta instrukzio liburuak erabat osatuak ematen ditugu.

- Nola heltzen diozu itzulpenari?

- Testu osoa irakurri eta ulertu egin behar da. Zalantzaren bat izanez gero, enpresara deitu eta argitu egin behar da. Hortik aurrera, paragrafo bakoitza hartu eta itzultzen hasten zara. Noski, kontuan izanik hitz teknikoak ezezik badirela beste zenbait esaera eta espresio ere hizkuntza bakoitzean era batera esaten direnak. Horregatik funtsezkoa da bi hizkuntzak bere osotasunean ezagutzea eta zein kontestutan mugitzen zaren jakitea.

- Idazkaria ere bazara.

- Bai. Inportazio-espportazio departamentuko idazkaria naiz egun erdiz eta gainontzean aritzen naiz itzulpenak egiten. Horrez gain, ikastaro ezberdinetan eta interpretik ez duten enpresetan interprete lana egiten dut.

- Itzultzea gustuko duzu?


- Bai. Etengabean zaude hizkuntzari buruzko ezagupenak handitzen.

kili**BARREN**

Mendaroko gehigarria

Urtarrilaren 26a

25. zkia.



Hau da jende mor-
doa! esango du
askok eta askok
argazki hau
ikustean: zaha-
rrak, gazteak,
umeak... herri osoa, esaterako. **Jesusita Irion-
dok** utzitako argazki hau 1945. urtean aterata-
koa da. Bertan hiru apaiz ikus daitezke. Erdi-

koa **Don Ramon Etxeberria** da, amezketarra,
eta bere ondoan agertzen dena **Don José Rote-
ta**, Mendaroko apaiza izan zena.

Dirudienez, garizuma garaikoa da erretra-
tua eta urte hartan aste osoa gogo-jardunetan
eman zuten herritarrek hiru apaiz horien
laguntzaz. Gogo-jardunen amaieran, meza
nagusiaren ondoren argazki hau atera zuten
Garagartzako eliza kanpoan.

Mendaroko *idazle* gazteen

Lehenengo aldia da Mendaron ipuin lehiaketa bat antolatzen dena eta dirudienez oso arrakastatsua izan da. Bi kategoriatan banatu zen, A mailan 6., 7. eta 8. mailak eta B mailan ertainak. Guztira 20 lan aurkeztu ziren, 9 A mailan eta 11 B kategorian. Kategoria bakoitzeko hiru sari zeuden baina epaimahaiak B mailan lehenengo saria eman eta beste hiru lanen artean 30.000 pta. bana-tzea erabaki zuen. Bakoitzak 10.000 pta. eskuratu zituen, hiruak oso parean baitzeduen kalitate aldetik. Aipatzekoa da B mailan Deba Beheko guztiek har zezaketela parte baina sari guztia

mendarotarrek eskuratu zituztela.

Arantza Egaña Euskara Batzordeko buru denaren asmoa lehiaketa bat egitea zen berak beharrezkotzat jotzen baititu euskara bermatzeko horrelako gauzak. Arantzak Batzordean aurkeztu zuen eta

oniritzia jaso zuenez aurrera eramanezen. Hilaren 7an izan zen sari banaketa. Arantzaren balorazioa oso positiboa da eta bera dagoen bitartean lehiaketa mantendu eta urte batzuk barru klasiko bihurtzea ere nahi luke.

Epaimahakoa izan da Anjel Basterretxea parrokoa. Anjelek bi gauza azpimarratu ditu. Batetik, euskara maila. Esan digunez, bere jenerazioa erdaraz alfabetatu zen eta benetan pozgarria da oraingo gazteek darabilten euskara dotore eta jatorra ikustea. Bestetik, ipuin batzuetan isladatzen den belaunaldien arteko gatazkak deitu dio atentzioa, gurasoen eta seme-alaben artean dauden gatazkak, hain zuzen.

A maila

**Naomi
Revert**
11 urte (1.
saria)

"Azenetan"

Lehenengo saria harriduraz hartu du Naomik, "nik pentsatu nuan nerea baino hobiauak egongo ziala, ez nuen espero irabaztia". Ez zaio asko gustatzen idaztea eta ahizpak animatuta aurkeztu zen lehiaketara. Irakurtzea gustuko du, batez ere beldurrezko liburuak. Berak idatzitako ipuinak istripu bat kontatzen du, "ume batek eta bere amak istripu bat izaten dute. Umeak ametetsetan koba batean sartu eta gizon bat ikusten du. Gizonak ontzi batera sartzeko esaten dio, hala egiten badu hil egingo dela esanez. Umeak ezetz esaten dio, esnatu eta sendatu egiten da".



Estibaliz Jurado

14 urte (2.saria)

"Neska eta mutil bikotea baso haundi eta misteriosuan galduta"

Titulu luze hau fantasiazko ipuin baten laburpen txiki bat besterik ez dela esan digu Estibalizek, "nire ipuina fantasiakoa da pertsonaia txikiak agertzen direlarik. Hala ere, fantasiazkoak gain bildurrezko liburuak ere asko gustatzen zaizkit". Irabazitako saria gustukoa omen du, "irabazitako dirua gastatu dot, erregalo bat erosi naban Pitxintxun".



Ion Larrañaga

13 urte (3. saria)

"Aski da"

Lehenengo aldia da Ion ipuin lehiaketa batera aurkeztzen dena, "nire arrebak esan zian parte hartzeko, neri ez jata gehixegi gustatzen idazia". Irakurri duen azken liburua Tintin-ena izan omen da eta bere autorerik gustukoena Bernardo Atxaga dela esan digu, "ez dut bere libururik irakurri baina oso ezaguna da".

B maila



Leire Eizagirre

16 urte (1. saria)

"Dantza baten orpoetan eroritako petaloa"

"Lehenago beste ipuin lehiaketa batzuetan hartu izan dut parte, Elgoibar kuan adibidez eta Urruzunora ere bidali nuen poesia bat. Halere, ez nuen espero lehenengo saria irabazia". Mitologia asko gustatzen zaiola aitortu digu, sorginak batez ere, "uste dut sorginak euskal kulturaren zati bat direla. Nire ipuina horri buruzkoa da". Titulua metafora bat dela esan digu Leirek, "dantza akelarre bat bezala hartu dut eta orpoetan eroritako petaloa sorginak gizartean nola sentitzen diren azaltzeko ipini dut".

Inspirazioa ba omen dago Leireren ustez, "ezin da edozein momentutan edo tokitan idatzi. Momentu berezi batzuk daude, hori inspirazioa da".



Nerea Larrañaga

16 urte (10.000 pta.)

"Gogoetak"

Nereak esan digunez ilusioa egin zion Mendaroko ipuin lehiaketara aurkezteak, "Elgoibarren dauden lehiaketetara aurkeztera behartu egiten gaituzte eta behin Mendaron lehiaketa bat antolatuz gero, aurkeztea erabaki nuen". Sariarekin oraindik ez daki zer egingo duen, "amak liburuetan gastatzeko esaten dit". Irakurri duen azken liburua "Tubabu" izan da baina eskolan behartu dutelako. Idazteko toki berezirik ez duela aitortu digu, "normalian sukaldian idazten det baina ez dakat toki berezirik".



Amagoia Basurto

15 urte (10.000 pta.)

"Azken metroak"

Lagunekin zegoela idazteko gogoia etorri zitzaion eta asko pentsatu gabe idatzi zuen "Azken

metroak" izeneko ipuina. "Mutil bati maite duen neska hiltzen zaio. Penaren penaz, zubi batetik botatzen da, behera erori artean neskarekin pasatutako momentuak gogoratzen ditu".

Ez zaio axola zein liburu irakurri baina zerbait irakurtzera behartzen badute normalean gustatzen ez zaiola aitortu digu, "nire kabuz euskarazko liburuak irakurtzea gustatzen zait". Amagoia prest dago beste ipuin lehiaketa batzuetara aurkezteko.



Igor Horrillo

16 urte (10.000 pta.)

"Zorionez atzerritarrak"

Normalean ez du idazten baina Mendaron ipuin lehiaketa bat zegoela jakitean aurkeztea erabaki zuen. Idazteko era bitxia du, "hasi mahai gainean hasten naiz baina enrollatzen naizenean, ohe gainian edo beste edozein tokitan idazten amaitzen dot". Berak ez omen du inspiraziorik, "nahi dotenian bakarrik idatz dezaket". Autore bat aukeratzeko orduan Noah Gordon du gustukoena eta irakurri dituen liburuen artean "El Diamante Jerusalén" dago.

Aitor Etxeberriaren pintura Madrilen



Jubilatuentzako gimnasia

Urtarrilaren 8an hasi zen jubilatuei zuzenduriko gimnasia ikastaroa. *Lagun Betikoak* Jubilatuen Elkarteak antolatua, San Jose Ikastolan da aipatu ikastaroa.

4

Dagoeneko 18 jubilatuta daude taldean eta klaseak, astelehen eta asteazkenetan dira, arratsaldeko 5etatik 6etara. Ikastaroa printzipioz Aste Santurarte izango den arren, ekainera arte luzatzeko asmoa dago. Kuota hileko 1.000 pta.koa da eta oraindik ere badago aukera parte hartzeko.

Bestalde, Jubilatuen Elkarteak "Memoria lantzeko ikastaroa" antolatzeko asmoa du. Honen berri gehiago izateko batzordekideengana zuzendu behar da.

Kuruzpek bide berri bati ekingo dio

Kuruzpeko bazkideekin egin zen azkenengo bileran erabaki zen epe berri honetan zeintzuk izango diren elkarte honek jasango dituen aldaketak. Egitura aldetik lan talde desberdinen bitartez funtzionatuko du eta antolatuko diren ekintzak bereziki gazteei zuzenduak izango dira. Bazkideek abantaila bereziak izango dituzte prezioari dagokionean batez ere. Aldaketa hauek direla eta, aurreko urteetako bazkideen zerrenda baliogabe geratzen da eta datozen asteetan zerrenda berria plazaratuko da nahi dutenek izena eman dezaten. Interesatuta daudenentzat bilera egingo da gaur, hilak 26, ostirala, Kultur Etxean arratsaldeko 21,30an inguruan.



Etxebizitzen eraikuntza

Itxura denez, merkatu inmobiliarioa indartzen hasia da Mendakoa ere. Izan ere, etxebizitza kooperatiba berri bat sortu da eta Mendakoko frontoiaren inguruko poligonoan berehala dira hastekotan 18 etxebizitza eraikitze obrak. Bestalde, promotora pribatu batek lanean dihardu berehalako batean 30 etxebizitza eraikitzen hasteko asmoz.

kiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Oihana Tarragual eta Elena Zubiaurre.



Mendakoko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

Agurtzane Lizarriturri

Kide ileapaindegikoa



● **Zer da zuretzat edertasuna?**

▶ Polita eta zentzuduna den zerbait.

● **Zure bizitzako zein une moztuko zenuke?** ▶ Eskolako urteak.

● **Herriko zer gauzak behar du garbitu bat?**

▶ Droga inguratzen duen munduak.

● **Tintatzea gustatuko litzaizukuen zerbait:**

▶ Diruaren arazoaren kolore beltza, kolore biziz tintatuko nuke.

● **Elgoibarko zein toki da brillorik gehiena duena?**

▶ Agian nere kalea delako izango da, baina San Frantzisko kalea, jende gehien ibiltzen dena da gainera.

● **Zure bizitzako zein adin egingo zenuke permanente?**

▶ Hemeretzi urteak.

● **Espuma ala gomina?** ▶ Biak dira onak, bakoitza bere momentuan,

baina bat aukeratzekotan espuma, gehiago erabiltzen dut.

● **Zer gogortuko zenuke lakarekin?** ▶ Maitasuna.

● **Ile motza ala melena luzea?** ▶ Izatez ile motza erosoagoa da, baina ile luzea ondo zainduz gero ere oso polita da.

● **Mutilak: rubioak, ilegorriak ala morenoak?** ▶ Aukeran morenoak.

● **Gau erromantiko baterako zein orrazkera egingo zenuke?**

▶ Bildu polit bat, sinplea baina polita izan dadila.

● **Burusoil geldituz gero pelukarik jantziko al zenuke?** ▶ Nik uste

dut baietz, gaur egun gainera oso peluka politik eta naturalak daude.

● **Zerk jartzen dizkizu ileak tente?** ▶ Oso beldurtia naiz, edozer gauzak ikaratzen nau, baina batipat heriotzak.

● **Ileapaintzaile izatea zuretzat afizioa ala ofizioa da?**

▶ Lehenago afizio zena ofizio bihurtu da.

● **Zeure buruari egingo ez zenukeen orrazkerarik ba al dago?**

▶ Bai, ilea erabat ez nuke moztuko ezta erabat rubio jarri ere.

● **Skin-head baten burua ala tximoso batena?**

▶ Ez batena ezta bestearena ere.

● **Haizea buruan eta ibili munduan.** ▶ Garai batean agian bai, baina gero konturatzen zara hankak lurrean edukitza dela egokiena.

IRATI AGIRREAZALDEGI

KARAKATEKO ANTENA

DOINUA:

Leiho ertzetik

Dakusagunez denon gustoa betetzen ez da hain errez eta gainera ekologia ta teknologia berez, kontzientziaren hasieratik muturtuta dabiltzanez: guztiak umore txarrez; BIS (ederki dakusagunez. Plaentxi dela Karakateko terrenoa; diot aurrez. Beraz, neronen irizitxoa BIS (emango dut horrenbestez.

Ekologiak kalte handia agian jasan lezake. Antena horren aurka badabil hainbeste jende jo ta ke. Agian gure "kaxa tontoak" mejora izango luke. Hainbat izerdi ta neke BIS (Demagogiaren truke. Injinariek nire ustetan dena "kontrolpean" dute. Hortaz, antena probable da ta BIS (denok bakean; nik uste.



ARNAITZ GORRITI

EXMAHE S.L.


MAKINA ERRAMINTA ZERBITZUAK ETA ESKLUSIBAK

BULEGOAK:

Azpilgoeta, 3
TEL. 75 50 93 FAX 75 51 21
20 850 MENDARO

ALMAZENA-TAILERRA:

Pedro Muguruza, 25
TEL. 74 36 46
20 870 ELGOIBAR



PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behe. ☎ 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAREN ERATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Inbertsio handien garaia amaitu da

Asteazkenean Isaak Loiolak prentsaurrekoa eman zuen Gobernu Taldearen izenean eta Ekonomi eta Hazienda Batzordeko lehendakari bezala. Bertan, 1995eko ekitaldiaren berri eman zuen eta Udalaren gaur egungo egoera ekonomikoa zein den azaldu.

Loiolak Udaletxea bikote ezkonberri baten egoerarekin parekatu zuen. Bikoteak etxea erosteko kreditu hipotekarioa eskatzen duen bezala, Udalak ere kredituak eskatu behar izaten ditu inbertsioak egiteko. Gero, bikotearen soldadak kreditua ordaintzeko zuzentzen dira, Udalaren

kasuan ere berdin, urteko aurrekontuaren zati bat zorrak ordaintzeko erabiltzen dira. Hori dela eta, esan zuenez, aurrera begira ezingo dira inbertsio handiegiak egin nahiz eta herriaren garapena bermatuko duen azpiegitura mailako lanek jarraituko duten: kaleak margotu, argiak ipini, bideak konpondu...

Bukatzeko, urte berriari begira plan berri bat martxan jartzeko asmoa azaldu zuten. Hiru zutabe nagusi izango ditu planak. Batetik erosketak era orokor batez egin, bestetik tesoreria plan bat egin eta hirugarrenik, sail bakoitzeko gastuak kontrolatu.



Isaak Loiola eta Guillermo Garate prentsaurrekoan.

Udalaren ekonomi egoera

KONTZEPTUA	1995eko ekitaldia	1996ko ekitaldia *
Gastu arruntak	771.612.571	804.128.434
Sarrera arruntak	989.805.000	1.021.396.182
Finantzar karga	192.513.485	200.425.516
Zor iraunkorra	1.340.734.940	1.272.922.383
Zorpetze maila	%20,40	%20,07
Aurrezki gordina	218.192.429	217.267.748

* Aurrikusten dena.

Partidarik garrantzitsuenak

■ KULTURA	
Jaiak	31.600.000
Musika eta dantza fundazioa	34.000.000
Herriko Antzokiaren hobekuntza	12.133.251
■ GIZARTE PRESTAKUNTZAK	
San Lazaro egoitza	11.000.000
Etxez etxeko laguntza	12.575.000
Gizarte larrialdietarako laguntza	5.850.000
■ HIRIGINTZA	
Ur patzuergoa	45.367.895
Agarreko depositorako ur horniketa	32.840.118
Kaleetako argi indarra	11.200.000
88ko uholdeen lanen ordainketa	26.789.985
Baserrietako lanak	22.500.000
■ EUSKERA	
Euskaltegi mankomunitatea	10.280.184
BARREN	7.500.000
■ HAZIENDA	
Prestamoen interesak	121.191.695
Prestamoen amortizazioa	65.529.052
Foru Aldundiarekiko zorrak	20.977.331
DEBEGESA	9.048.026

1995eko EKITALDIAREN AMAIERA

Sarrerak

Zerga zuzenak	230.544.776
Zeharkako zergak	21.030.743
Tasak eta bestelakoak	192.104.977
Transferentzia arruntak	545.192.304
Ondare sarrerak	932.200
Kapital transferentziak	44.647.367
Finantzar pasiboen aldaketak	125.000.000

Guztira1.159.552.367

Gastuak

Pertsonal gastuak	315.866.527
Zerbitzu eta ondasun arrunten erosketak	198.206.021
Finantzar gastuak	121.816.695
Transferentzia arruntak	257.540.023
Benetako inbertsioak	176.484.718
Kapital transferentziak	3.132.000
Finantzar aktiboen aldaketak	20.977.331
Finantzar pasiboen aldaketak	65.529.052

Guztira1.159.552.367

Zabala dorretxea (II)

- Iparraldeko fatxadak, beheko solairuan sarrera dinteldua eta alboetan gezi-leiho bana ditu. Lehenengo solairuan bi arku zorrotz ditu, bat haudiagoa izanik. Bigarren solairuan, lau pare leiho bizki daude, erdi puntuko peraltuak edo zorrotzasun gutxiz. Hauen gainetik modiloio lerro bat eta ganbararen pareko ezker aldean leiho angeluzuzen bat daude.
- Mendebaldeko fatxadak beheko solairuan sarrera eta leiho dinteldu bana ditu, dorretxea eraiki zen garaikoak. Lehenengo solairuan hiru baogune dinteldu daude, tamainu eta ardatz ezberdinekoak. Eskubikoa balkoirako atea da eta ezkerrekoa harlanduz inguratutako leiho bat.
- Bigarren solairuko ertz bietan erdi puntuko arku peraltu bina daude eta fatxadaren erdian zorrotzasun gutxiko arku banaren artean, matakan bat dago, hiru modiloiko mentsuletan eusten delarik. Ganbararen parean, berriz, modiloio lerro bat dago. Guztira, lau fatxaden artean 32 modiloio daude.

- L.M. Ezenaroren artxiboko lanari jarraituz, hona hemen dorretxe honen zenbait datu historiko: batetik, dokumentu zehatzik ez dagoenez, XV. mendea baino lehenagoko jatorriarik ezin da ikertu. 1451ko dokumentu



batean Rodrigo Ibañez Zabala azaltzen da eta 1471n eta 1507an Fernando Zabala. Halere, Maria Lopez Lasalde, Zabala etxeo anderearekin, XV. mendearen erditik 1520. urtera arte bizi izan zenarekin hasita ezagutzen da familiaren jarraipena.

- Badirudi Fernando Zabala Maria Lopezen senarra izan zela eta hauen semeek, Juan, Rodrigo eta Lopek Fernandez Zabala deiturak izan zituzten. Hiru anaiak burdintzian aritu ziren.
- Lope izan zen San Frantzisko komentua eraikitzeko (1516) dirua ematen nabarmendu zena. Komentu honetako "Ebanjelio" aldean izan zuten Zabala etxeokoa hilobia. Hilobi hau izan zen eraiki zen lehenengoa eta familiak izan zuten eskuzabaltasunagatik eskaini zitzaion.
- Ondorengoei buruz Ezenarro jauna luze aritu zen "Las casas de Carquizano y Zabala de Elgoibar" artikulua sakonean, 1975ean argitaratua RSVAM-n.

PELLO ARRIETA

Justa Intxausti

Tabernaria (1925-1991)




- 1925eko urriaren 18an jaioa Olazarreta baserrian, Casablanca izenez ezagunagoa.
- Hamaika anai-arrebaren artetik seigarrena zen.
- Eibarko BH bizikleta lantegian jardun zuen lanean urte askotan.
- 1950ean Gabriel Gabilondorekin ezkondu zen eta bi alaba izan zituzten.
- Ama-alabek Gabi tabernan aitari laguntzen zioten bai pastelak egiten bai eta mostradore ostean ere.
- Gabi hil zenean, Justa hartu zuen tabernaren ardura.
- Naturazalea zen, loreak gustatzen zitzaizkion batez ere.
- C.D. Elgoibarri laguntzeko kina antolatzen zuten asteburuero Gabi-nean.
- 1986ko abenduan taberna ixtea erabaki zuen osasun arazoengatik.
- Bost urte beranduago, 1991ko otsailaren 10ean hil zen.

XABIER

ILEAPAINDEGIA

*Eskatu
eguna eta ordua*

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97



OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

ZALDUA ITURGINTZA

GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

MOTZAK

Formigalera irteera

Ibai Klubak Formigaleko eski estaziora irteera antolatu du otsailaren 3 eta 4rako. 13.700 pta.ko prezioaren barruan pentsio osoko egonaldia bi eguneko erremontek, baidaia eta aseguria sartzen dira. Hau guztiaz gain, eski ikastaroa eta ekipoa ere barruan daude. Izena emateko Ibai Klubeko 74 07 93 edo 74 27 06 zenbakietara deitu.

Bolo txapelketaren bigarren tiraldia

Iluntzeko 8etan hasiko da San Migelen Elgoibarko Bolo Txapelketaren bigarren jardunaldia. Iragan den asteko lehen tiraldian San Pedro auzoko Inazio Kortaberriak 8 txirlo bota zituen, San Rokeko Josu Zialtzetak bota zituen berdinak. Hirugarrenen Iker Izagirre sanmigeldarra sailkatu zen 7 txirlorakin. Taldeka San Migel doa lehena 25 txirlorakin, San Pedro ondoren 20rekin eta atzetik Sallobente 19rekin.

Mintxetako muskulazio gela itxita

Datozen bi edo hiru astetan Mintxetako muskulazio gela itxita egongo da haize boladek Mintxetako harmailetan sortarazitako kalteak konpondu artean. Sabaia apurtuta dagoenez, itukinak sortu dira muskulazio gelan eta glea ixtea erabaki du Udalak. Kuota ordainduta duten kirolariek Olaizaga kiroldegiko muskulazio gela eta igerilekua doan erabili



Zuhaitz Gurrutxaga:

"Euskadiko kamiseta jantziko nuke gustora"

■ **Zenbat urte Klub Deportiboa?** - Bosgarren mailan hasi nitzan. Gero urtebete eskolako ekipuan eon nitzan nere kategorixia kendu ein zabelako. Beste urtebete ein nabari Klubian eta Realera jun nitzan beste urtebete zediduta. Arazo fisiko bat euki nabari eta azkenian Klub Deportibora etorri nitzan berriro.


■ **Zelaian, zein lekutan jokatzen duzu?** - Atzean, defentsan.

■ **15 urte besterik ez, eta Espainiako selekzionarako hautatua.**

- Aurretik Gipuzkoako selekzionarako hartu ninduten Araban eta Bizkaian kontra jokatzeke eta Euskadiko selekzioa osatzeko. Euskadiko selekzionarako ez ziaten hautatu baina Espainiako selekzionadorea partiduren batian eon zan eta Espainiako selekzioekin entrenamenduetara juteko aukeratu ninduten.

■ **Zure erreakzioa ezetza ematea izan zen hasieran.** - Bai, oso nerbiosua naiz eta. Gero rekapazitau eta politxa izan leikela pentsau nabari.

■ **Espainiako selekzioan egotea, aspirazio handia izango da edozein jokalarirentzat?** - Oin arte Etxeberria bakarrik eon izan da eta edozeinentzat inportantia da. Lehenao beste konbokatorixa bat eon da eta otsailian bukaeran esango digute hartu gaitxuen



ala ez. Kasu horretan Inghaterrara jungo ginan jokatzerara.

■ **Joseba Etxeberriarekin antzikhartzen al diozu zeure buruari?**

- Bueno nik oindiok ez dot lortu ezer, preselekziuana pauso bat da, inportantia baina Etxeberriagandik urruti nao ni.

■ **Profesional izatea da futbolarien ametsa. Zeurea?** - Errealera heltzia ondo eongo litzake baina nere arazo fisikua oztopua izan leike.

■ **Etxeberriaren ametsa ere Errealan jokatzea omen zen.**

- Bai, baina batek daki non bukatzen dozun. Nik ere berdina esango nabari, nahixao Errealian Athletician baino. Baina gero edozer gerta leike, eta dirua ere erditxik dauanian...

■ **Errealekoaz gain, zein kamiseta jantziko zenuke gustura?** - Euskadiko selekziuana.

Gales-eko eta Eskoziako selekzioak dau den bezela Euskadikua eixia ondo eongo litzake. Ekipo ona izangolitzake gainera, baina igual Ligia ere ein biharko litzake eta hori zaila izan leike.

- Adina: 15
- Jokalari bat: Karpin
- Belar mota: Hobia naturala baina ohixu naiz artifizialakin.
- Gorroto duzun talderik? Gorrotorik ez, Athletic-en kontra pike sanoa.

MIREN arraindegia

Santa Ana
74 34 49
ELGOIBAR

TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38

Goñi eta Apeztegiak irabazi zuten San Anton Pilota txapelketa

Goñi eta Apeztegia bikotea nagusitu zen eskuzko San Anton Pilota Txapelketako seniorren finalean. 22 eta 13ko emaitzaz amaitu zen saltsa handirik eta aparteko jokorik izan ez zuen partidua.

Olaizola eta Okiñena izan zituzten aurrez aurre Goñi eta Apeztegiak joan den ostiraleko finalean. Apeztegia atzeko aldean eta Goñi aurrean, arazorik gabe atera zuten bederatzitako alde. Goñi ikusgarri aritu zen aurrean, eten, dejada eta besa-gain bikainak egin zituelarik. Ikuslegoaren artean zeuden Antxon Maiz eta Salvador Bergararen iritziz, Oronozeko mutilak afizionatuetatik profesionaletarako jauzia berehala eman dezake. "18 urterekin maila handiko aurrelaria dela erakutsi du eta zorte apur batekin..."

4 t'erdiko promesen mailan Larraiak 18 eta 11 irabazi zion Muruamendiari. Partiduan zehar antzera ibili ziren arren bi pilotariak, azkenean, 7 tantoko alde atera zion Larraiak Muruamendiari. Jokaldi politak burutu zituzten bi pilotariak, Larraia zenbait tantok ikuslegoaren txalo beroak

jaso zituztelarik.

Jubeniletan, Ubera II.a eta Otxandorenarentzat izan zen txapela. Olaizola II.a eta Errandoneak 15 tanto lortu zituzten eta 22 irabazleek. Partidu interesgarria izan zen baina pilotariak ez zuten ikuslegoa gehiegi berotzeko gaitasunik izan. Azkenean merezitako garaipena lortu zuten Uberak eta Otxandorenak.

Lagunak Pilota Eskolak antolatutako San Anton Txapelketaren aurtengo edizioa urtarrilaren 5ean hasi zen. Ikuslego aldetik txapelketak izan duen harrerari buruz, pozik agertu dira Lagunak elkarteko kideak. Finaleko partiduetan Ikastolako frontoiko tribunatxoa bete egin zen.

EMAITZAK

- SENIORRAK
Goñi/Apeztegia 22
Olaizola/Okiñena 13
- 4 T'ERDIKO PROMESAK
Larraia 18 - Muruamendiari 11
- JUBENILAK
Ubera II/Otxandorena 22
Olaizola II/Errandonea 15



Goñi eta Apeztegia kopa eskuan. Ezkerrean Pedro Agirregomezkorta Lagunak Taldeko ordezkaria eta eskuman, Gilermo Garate alkatea.

Futbola

Valmaseda 0 - Haundi 1
Alde Zaharra 1 - Elgoibar 5 (Neskak)
Amaroz 5 - Elgoibar 2 (Jubenilak)
Real Unión 5 - Elgoibar 0 (Infantilak)
Elgoibar 0 - Antoniano (1. erreg.)
Elgoibar 1 - S. Herrera 3 (Kadeteak)

Saskibaloia

Elgoibar 41 - Alde Zaharra 48

Eskubaloia

Urnieta 9 - Elg. Pagoaga 19 (Kad. neskak)
Bidebieta 14 - Elgoibar 40 (kad. mutilak)
Elgoibar 37 - Ordizia 18 (Jub. mutilak)
Jauja 21 - Elgoibar 22 (Seniorrak)

Futbitoa

Sanroketarra 2 - S. Braga 0
Ikus Optika 3 - Rebel Urbi 1
Aldavas 1 - Roke 3
Karkis 8 - Aterpe 2
Kosakos 3 - Udaberri 1
Orbela 6 - Ametsa

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 27
09,30 Urki B - Bergara (Jubenilak)
11,15 Elgoibar - Idiazabal (Jubenilak)
13,00 Gazteak - Orio (Jubenilak)
17,00 Haundi - Touring
18,45 Urki A - Antzuola (Jubenilak)
Igandea, 28
09,30 Eibartarrak - Soraluze (Jubenilak)
11,15 Eibar Urko - Real Sociedad (Jubenilak)
13,00 S. D. Eibar - Anaitasuna (1. erreg.)
14,45 Gazteak - Eibartarrak (2. erreg.)
16,30 C.D. Elgoibar - Antoniano (Neskak)
18,15 Urki - Zestoa (2. erreg.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 27
17,00 Elgoibar - Arrate (Kad. mutilak)
18,30 Elgoibar - Hondarrabi (Seniorrak)

Futbitoa, Urasandin

Igandea, 28 (Arbitraia: Kosakos)
10,00 Oraiko Disko - S. Pitxote
11,00 Aterpe - Berrogei Duro
Pedruskos - S. Karapola
12,00 Karkis - P.S.K.
King Kong - Lucky Lucke

Elgoibartarrak Aconcaguan

Jose Inazio Izagirre eta Aitor Argarate mendizale elgoibartarrak Aconcaguako gailurrera iritsi ziren abenduaren 31n. Zortzi laguneko talde batekin abiatu ziren Argentina aldera, Xabier Erro zuzendari zutelarik. Aklimatazioa egin eta gero, Aconcaguako maldetan gora abiatu ziren.

Aspalditik zuten Jose Inazio Izagirrek eta Aitor Argaratek garaiera handiko mendi bat egiteko gogo. Aconcaguara igo aurretik, Mendoza herritik gertu dagoen haran batean aklimatazeko asmoz bi mendi igo zituzten, 5.700 eta 6.300 metrokoak. Hurrengo astean kanpamendu basera lehenengo, porteak igo eta azkenik ia zazpi mila metro dituen tontorrera igotzeari ekin zioten. "Konjelazio arazoak ondoren etorri ziren. Eguraldia benetan eskasa zen, baldintzak oso gogorrak ziren". Gailurretik jai-tsi eta egun bat beranduago ohartu zen Jose Inazio oinetako behatzak izoztuta zituela. "Belztu egiten dira; zerbait sentitu nuen baina begiezu ikusi arte ez nintzen ohartu". Mendoza herriko ospitalean tratatu zituzten lehendabizi Jose Inazio eta Pasaiako beste mendizale bat. Zaragozako ospitalera eramanean zituzten handik, Arregi doktore ezagunaren zainketak jasotzeko.

Aurreko ilaran eskumako lehena da Aitor Argarate eta honen alboan dagoena Jose Inazio Izagirre.

"Oinetako zortzi behatz nituen kaltetuta, nik uste nuena baino gehiago, baina azkenean ez da hain grabea izan. Barruko okela errekuperatu egin da, eta orain behatz puntak baino ez ditut beltzak. Hilabete barru joango naiz ospitalera eta kanpoko azala kendu eta berria jaioko da".

Konjelazioak zergatik gertatzen diren jakitea oso zaila da. "Faktore asko dira, aklimatazioa, hotza... Aitor eta biok ondo presta-

tuak joan ginen eta nik konjelazioak izan ditut eta Aitor 'Naparrak' ez. Nik denbora gehiago izan nituen hankak elurretan, kranpoiekin ere hankak gehiago hozten dira, jai-tsieran ere ekaitzak harra-patu gintuen..."

Jose Inazioren hitzetan, Aconcagua mendia "ikusgarria" omen da, baina uste baino gogoragoa. Hala ere, proiektu mordoak dute eskuartean, "batek daki zein mendi

izango den hurrengoa, baina beti pauso bat gehiago ematea nahi izaten da". Alpeetan, Pirinioetan, Kilimanjaron, Aconcaguan eta beste askotan ibili ondoren, mendi altuago batera igo eta leku ezberdinak ezagutzeko gogorik ez zaio falta Jose Inaziori.

Amerikako altuena

Aconcagua, mendi mitikoa mendizaleen artean. Askok eta asko dira 6.959 metro dituen mendi honetara igotzen ahalegintzen diren mendizaleak baina, Jose Inazio Izagirrek esan digunez, %30ak bakarrik lortzen du gora igotzea. Kanpamendu basea nahiko ondo antolatua dago eta ez da azpiegitura handirik behar izaten hara joateko. Sasoirik onenetarikoak Gabonak izaten da, han uda baita. Hala ere, klimatologia hain aldakorra denez, ezinezkoa da

zein eguraldi egingo duen aurreikustea. Hortaz, eguraldi txarra tokatuz gero, teknikoki zailtasun handirik ez duen igoera asko gogortu daiteke klima txarrarekin. Urtarrilaren 2an beste elgoibartar bat, Luis Mari Arakistain mendizalea, Aconcaguarantz abiatu zen Federazioko beste batzuekin tontorra egiteko asmoz. Jakin dugunez, Arakistainek gailurra egin zuen San Sebastian egunean, hilaren 17an eguraldi txarragatik ahalegin hutsala egin eta gero.

ELGOIBARKO IZARRA IDAZ LEHIAKETAK

596 lagunek hartu dute parte aurten

Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketak” izenpean antolatzen diren V. Prosa Lehiaketaren eta XV. Etxegiña Bertso-paper Lehiaketaren irabazleen izenak eman ziren ezagutzera joan den ostegunean Herriko Antzokian izan zen ekitaldian. Bitan banatu zen saioaren erdian Alberto magoak magia ikuskizuna eskaini zuen.

Urtero bezala aurkeztutako lanen kalitate bikainak markatu du Elgoibarko Idaz Lehiaketan azken edizioa. Epaimahaikoen lana ez da bat ere erraza izan lan batzuk saritu

eta beste batzuk baztertzeko orduan. Bertsoen atalean German Meabebasterretxea Bertso Eskolako arduradunak eta Izaskun Elizburuk izan dute erabaki ahalmena eta prosan, Jasone Osoro eta Itziar Agirregomezkorta herriko idazleek.

Guztira 596 lagunek hartu du parte aurtengo edizioan; 146 lan aurkeztu dira bertso-paperetan eta 450 prosan. Iazko partehartzaileen kopurua erruz gainditu da aurten, 225 lan gehiago aurkeztu baitira. Prosa saileko partehartzaileen zerrenda, OHoko 7. mailatik hasita

ertainetako 4. mailara bitarteko neska-mutiek osatu dute eta bertso-paperena OHoko 5. mailatik 18 urtera bitartera.



Goiko argazkian irabazle guztiak ikus ditzakegu. Erdian, ezkerretik hasita: Iñigo Izagirre, Iban Herrero eta Aitor Arrieta. Behean: ezkerrean Luzia Zubiaurre, erdian Jon Garate eta eskuinean Ane Barrenetxea.

X. PROSA LEHIAKETA

♦ **A MAILA**

(OHoko 7. eta 8. mailak)

- 1- Ane Barrenetxea (“Nire bizitza kontatzen”)
- 2- Oihana Martinez (“Errealitatea: gauzak beti ondo bukatzen ez direneko mundua”)

♦ **B MAILA**

(Ertainetako 1. eta 2. mailak)

- 1- Jon Garate Aranberri (“Beldurrezko ipui bat”)
- 2- Josu Iriondo Elorza (“Etorkizun beltza”)

♦ **C MAILA**

(Ertainetako 3. eta 4. mailak)

- 1- Luzia Zubiaurre (“Ispilua”)
- 2- Ane Guilló (“Kondaira bat basamortuan”)

XV. ETXEGINA BERTSO-PAPER LEHIAKETA

♦ **A MAILA**

(LHko 5. eta 6. mailak)

- 1- Aitor Arrieta (“Udazkena”)
- 2- Asier Elustondo (“Jai eta Lindun”) eta Uxue Alberdi (“Zaborra”)

♦ **B MAILA**

(OHoko 7. eta 8. mailak)

- 1- Iban Herrero (“Txirindulari izan nahi nuke”)
- 2- Sare Gurrutxaga (“Udazkena”)

♦ **C MAILA**

(Ertainetako 14 eta 18 urte)

- 1- Iñigo Izagirre (“Maite duzun hori falta zaizu”)
- 2- Amaia Astorkia (“Ustegabeen samina”) eta Lore Agirreazaldegi (“Joseba Etxeberria”)

♦ **AIPAMEN BEREZIA:**

- Jon Garate Goenaga (“Maite dudan hori falta zait”)

CESAR ROJO:

”Seiluetan kultura esportatzen da”

23 urte dituen gazte honek 11 urterekin ekin zion seiluak kolekzionatzeari. Bere gustuz baino gehiago, osaba baten herentzia gisa hasi zela aitortu digu, “amak animatu ninduen”. Gaur egun Espainiako seiluei buruzko pare bat album ditu eta atzerriko seiluez osatutako dexente libruska, besteak beste Rwandakoak, Arabiar emiratoetakoak, Gineakoak, Poloniakoak eta abar..

- Filatelia zertan oinarritzen da?

- Oso gauza sinplea da, filateliko batek seiluak kolekzionatzen ditu. Nazio guztietako seiluak erosi eta album edo libruska batzuetan txukuntzukun ordenatzen ditu.

- Eta non eskuratzen dira seiluak?

- Ni Filatelia Elkarte-ko partaide naiz eta bertan lortzen dituzte. Urte hasieran izena ematen duzu, kuota antzeko bat ordaindu eta interesatzen zaizkizun seiluak ekartzen dizkizute.

- Hobby garestia al da?

- Ez da



merkea. Batez ere kontuan izanik, iaz adibidez, mila pta. balio zuen seilu bat atera zutela. Bataz beste urteko 6.000 pta.ko kostua duela esan daiteke, gutxi gora-behera.

- Dena dela, badira seilu oso garestiak ere, ez?

- Bai baina salbuespenak dira. Esan nahi dut, kolekzionista arrunt batek apenas seilu garestirik izaten duen. Normalean oso aspaldikoak diren seiluak izaten dira eta bere garaian tirada gutxi izan zutenak, gaur egun apenas geratzen direnak.

- Esaterako, zenbat balio

dezake?

- Milioi bat pezetako balioa duen seilurik bada, go, egon.

- Zuk zeuk daukazu garestiena?

- 50eko hamarkadako batek 200.000 pta.ko balioa zuela irakurri nuen behin, ez dakit egia izango den edo...

- Eta zaharrena?

- XIX. mende inguru-koa den bat daukat. Osabak eman zidana.

- Bitxiak izaten dira benetan batzuk, ez?

- Bai, oso bitxiak. Ezagunak diren lauki formakoak ezezik, hiruki eta

ronbo forma dutenak ere badaude. Gainera ikusgarriak izaten dira seilu batzuek izaten dituzten irudiak.

- Koadroak ere isladatzen dira.

- Bai, errege, idazle eta bestelakoen aurpegiak, pintore ezagunen koadroak eta, joko olinpikoen garaian esaterako, kirolari lotutako makina bat kaleratzen dituzte. Azken finean artea egiteko beste era bat da.

- Negozioa izango da batzuentzat, ez?

- Logikoki estatuek diru sarrera ziurra dute seiluei esker. Are gehiago, Liechtenstein bezalako herrialde batek, seiluak kaleratzen bizi da ia-ia eta.

- Zer isladatzen dute seiluak?

- Herrialde bakoitzak bere kultura esportatzeko era bat gehiago da. Asko ikas daiteke seiluei esker.

- Beste kolekzionarik ba al duzu?

- Numismatikarekin ere hasi nintzen, herrialde diferenteetako txanpon eta bileteak kolekzionatzen. Errepublika eta gerrate zibilaren artean Euskal Herriak txanpon bat atera zuen eta hura badaukat.

- Salduko al zenuke seiluen bilduma?

- Ez, denbora asko eman dut orain daukadana biltzen eta badakidenez ez didatela dirutza handirik ordainduko... Beharbada egunen batean nazkatu eta norbaiti oparituko diot.



Salerosketak

C 15 FURGONETA erosiko nuke. Gasoila.
☎ 74 36 34

PULTSOMETRO BAT saltzen dut. Polar EDGE markakoa.
☎ 74 08 10

RETROPROIEKTORE bat eta "Le sana frontieré" frantseseko LIBURUA erosi nahi ditut.
☎ 74 04 59

OSPITALEKO OHE BAT saltzen dut: manibeladuna, koltxoi FLEX eta mesillarekin.
☎ 7422 21

ESKIAK SALGAI. Dynastar 1,85 m. Tyrolia loturak. Egoera onean. Nordica bota onak (41-42)
☎ 74 18 55 (gauean)

Suzuki Savage MOTORRA salgai. 2000 km. 650 cc.
☎ 74 02 24 / (908) 77 59 33

ZIBRO KAMIN markako estufa bat saltzen dut. Berria.
☎ 19 16 39

Etxebizitzak

Mendaron ETXEBIZITZA BAT SALGAI. Buztinalde plazan. Amueblatua.
☎ 77 05 90 Angel Mari

Pisu bat KONPARTITU nahi nuke Elgoibarren.
☎ 74 14 96 Izaskun

BUHARDILA BAT saltzen da Eibarren. Erreformatua. Prezio interesgarria.
☎ 10 76 09 Fernan

ETXE BAT SALTZEN DA Errosario kalean.
☎ 74 37 68

ETXE BAT SALTZEN da DEBAN. Amueblatua. Hondartzatik gertu.
☎ 74 22 83

SANTA KLARAN PISU BAT SALTZEN dut. 24. zenbakia 5B.
☎ 74 32 98

Lana

GAIXOAK ZAINTEKO prest nagoen emakume heldu bat naiz. Esperientzia daukat.
☎ 74 04 86 Victoria

Emakume helduak ETXEKO LANAK EGIN EDO PERTSONA NAGUSIAK zainduko lituzke.
☎ 74 32 51 Pili

TITULUDUN ERIZAINA, etxeetarako erizain edo praktikante zerbitzuak egiteko prest dago.
☎ 74 02 33 Marta Diego (Erizain diplomatua)

EDERGINTZAN LAN EGITEKO prest nago. Esperientzia daukat.
☎ 74 29 56 Gema

Garajeak

GARAJE BAT SALDU nahi dut. Marraduna. Pista beltzean. Oso merke.
☎ 45 49 29

GARAJE BAT SALTZEN dut pista beltz azpian, marraduna.
☎ 74 39 19

Garaje bat alokatu edo erosi nahi dut HERRI ERDIAN.
☎ 74 15 73

Garaje ITXI BAT SALTZEN da Arregitorren.
☎ 74 30 81

Garaje bat ALOKAIRUAN HARTUKO NUKE.
☎ 74 23 01 Igone

GARAJE ITXI BAT salgai Santa Ana 46an.
☎ 58 40 24
Gauetz deitzea hobe

GARAJE ITXI BAT saltzen da King-Kong-en.
☎ 74 06 22

Bestelakoak

IKASLE IPAR AMERIKARRAK HARTZEKO prest dauden familiekin harremanetan jarri nahi dugu, uda edo urtebete igarotzeko.
☎ 74 15 14 Maite

WELCOME ingeles ikastaroak, BBB eta UBI EEBBetan eta Ingalaterran. Au-pair EEBBetan.
☎ 74 15 14 Maite

Karitasek BI OHE DAUZKA behar dituenari emateko.
☎ 74 15 09

Partikularrak

Injinerutza eta magisteritza tituludunak KLASE PARTIKULARRAK ematen ditu.
☎ 74 01 48 Alazne

MARRAZKETA LINEAL ETA DIEDRIKOKO klaseak ematen ditut.
☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki

Zorionak

AMAIA RU! Zorionak etxekoan partez.

ZORIONAK PAKE! Laspedronas

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning-a742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitalea756264
Drogomenpekotasun Z.741008
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....102131
Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kirol Zerbitzua744415
Kultura Zerbitzua742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua...743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia.....740842
Polikirolegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola.....74 21 41
Herri Eskola74 08 79
I.M.H.74 41 32
Instituta74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo74 27 59
El Correo Español...74 10 82
Egin.....10 84 21
Zazpiki74 34 74

26 OSTIRALA

22,00 DIAPOSITIBA EMANALDIA

Gaia: Yosemite

Aurkezpena: Aitor Esnaola eta Pablo Barrenetxea

✓ Kultur Etxean

22,15 ZINEA

“Los puentes de Madison”

27 LARUNBATA

10,00 GIPUZKOAKO JUDO TXAPELKETA

✓ Kiroldegian

Antolatzailea: Ibai Kluba

12,00 "GUREAN BAI" EUSKARAREN ALDEKO HITZARMENAREN AURKEZPENA

✓ Udal Pleno Aretoan

20,00 BOLO TXAPELKETA

✓ San Migelen

19,30-22,15 ZINEA

“Los puentes de Madison”

28 IGANDEA

7,30 MENDI TRABESIA

Goizueta-Urnieta

✓ Irteera Plaza Handitik

16,30 ZINEA

“Yankee Zulu”

17,30 ZIRKOA

✓ Kiroldegian

19,30-22,15 ZINEA

“Los puentes de Madison”

29 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“Los puentes de Madison”

30 ASTEARTEA

19,00 EZTABAIDA SAIOA

Ertainetako gurasoentzat

✓ Kultur Etxean

22,00 ZINEA

“Los puentes de Madison”

31 ASTEAZKENA

19,00 ESKOLA PUBLIKOAREN MAPAREN AURKEZPENA

✓ Herriko Inститutan

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
27, larunbata:	Etxeberria	Zabaleta
28, igandea:	Etxeberria	Zabaleta
29, astelehena:	Ormazabal	Escala
30, asteartea:	Ormazabal	Escala
31, asteazkena:	Ormazabal	Escala
1, osteguna:	Ormazabal	Escala
2, ostirala:	Yudego	Anduaga

OKINDEGIA:

28, igandea: EIZAGIRRE

ZineA



Los puentes de Madison

Zuendaria: Clint Eastwood
Antzezleak: Clint Eastwood, Meryl Streep, Annie Corley.
Francesca Johnson-en heriotzaren ostean, bizimodu erabat ezberdina bizi izan zuela errebelatzen du honen diarioak. Emakumearen semealabek zintzoa eta asexuatua zela uste bazuten ere, maitasun historia sekretua bizi izan zuela jakingo dute. 1965ean National Geographic aldizkariaren enkarguz, Madison-eko zubiei argazkiak ateratzeko asmoz, Robert Kincaid-ek Francesca ezagutuko du, eta bien artean maitasun istorioa sortuko da.



Yankee Zulu

Zuendaria: Gray Hofmeyr
Antzezleak: Leon Schuster, John Matshikiza, Terri Treas.
Rhino eta Zulu lagun minak dira eta emakume kontuengatik adiskidetasuna hoztu egiten da. 25 urte beranduago lagun egiten dira. Zulu EEBBetatik deportatua eta Rhino Rowenagandik dibortziazteko tramitetan, Afrikako hegoaldean elkartuko dira. Zuluk Rowenaren amorantea den poliziarri 500.000 pta.ko loteria boleto bat lapurtuko dio.



otsailak
4
IGANDEA

Baseriz baseri ekean



Gaztetxoak

KOPLARIAK: Bertso Eskolako bertsolariak

Goizeko 9etatik 13,30ak arte

SAN LORENTZO auzoa.

(Goizeko 8,45etan Plaza Handian)

Nagusiak (2 talde)

KOPLARIAK: German Meabe, Jabier "Ziarda",
Juan Mari Areitio eta Jon Azpillaga.

Goizez (8,30-13,30): **San Migel, Arriaga, San Roke**
eta **Urruzuno** auzoak.

Bazkaria: **ATERPE** tabernan.

Arratsaldez (15,00-21,00): **San Migel eta San Pedro.**

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



OHARRA: Santa Eskeko koruetan parte hartu nahi duenak 74 16 26
(Imanol) telefonora deitu behar du urtarrilaren 31a baino lehen.



ELGOIBAR

**Otsailetik
aurrera**



ORDUTEGI BERRIA

ASTELEHENETIK LARUNBATERA

*Eguerdietan
ere zabalik!*

8,30etatik 8,30etara

*Mila esker zure
bisitaqatik!*

Santa Ana Kalea • tel. 74 21 24 • ELGOIBAR